

**EBAZPENA, 2025EKO OTSAILAREN 25EKOA, TURISMO ETA OSTALARITZAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ENTZUNALDIA ETA INFORMAZIO PUBLIKOA EMATEN BAITZAIO EUSKADIKO TURISMOAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2026ko otsailaren 9ko Aginduaren bidez, Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua betez, 2025eko otsailaren 25ean, izapidetzen ari den lege-aurreproiektua aldeztu aurretik onartzeko agindua eman zuen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak.

Era berean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2025 Legearen 133.2 artikuluan herritarrek lege-aurreproiektuak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruz xedatutakoa betez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egin behar da, egokitzen jotzen diren herritarren eta erakundearen iritzia eta ekarpenak jasotzeko.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak beti egin behar dira herritarren eskubide eta interes legitimoen zuzenean eragiten bazaie eta aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada. Entzunaldia zuzenean egingo da, edo eragindako herritarrek biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten bidez, baldin eta erakunde eta elkarte horiek lege onartuta badaude eta haien helburuek lotura zuzena badute xedapenaren gaiarekin.

Horretarako, Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua entzunaldian eta jendaurrean jartzen da, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutakoagatik, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuaren 6.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egitea, hilabetez, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikokoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



BIGARRENA.- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetzeko eta alegazioak aurkezteko, Euskadiko Turismo Legearen aurreproiektuaren testua eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/administrazioaren-iragarkia/euskadiko-turismo-legearen-aurreproiektua/web01-tramite/eu/>) eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

HIRUGARRENA.- Alegazioak epe berean aurkeztu beharko dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2025 Legean aurreikusitako edozein modutan. Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoa.

KLARA NAVAS ROMANO
Turismo eta Ostalaritzako zuzendaria